

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Hasierako onespena ematea arau subsidiarioen aldaketa puntualari

Guardiako Udalbatzak, 2019ko urtarrilaren 10ean egindako ohiko osoko bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

Lehena. Hasierako onespena ematea Guardiako udalerriko hirigintza antolatzeko arau subsidiarioen aldaketa puntualari, zeinek Santxo Abarka kalean udalak dituen eraikineko ekipamenduei eragiten baitie.

Bigarrena. Aldaketa horren espedientea jendaurrean jartzea hilabetez, ALHAOn eta Arabako Lurralde Historikoan gehien saltzen den egunkariren batean iragarki bana argitaratuz, kalte egiten diola uste duen orok azertu, eta, egoki iritziz gero, alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan.

Hirugarrena. Hasierako onarpenera jakinaraztea sektorean eskumena duten administrazio publikoei, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena eman dezaten, bai eta Paganosko Administrazio Batzarrari ere.

Guardia, 2019ko otsailaren 4a

Alkate-lehendakaria

J. PEDRO LEON GARCIA DE OLANO